


1



eskola kirola



HELMUGA

- ESKOLA KIROLAREN NONDIK NORAKOA
- GURASOEN JOKABIDEA

• GURASOEN JOKABIDEA

Dena dute ikasgai adin horietako haur eta gaztetxoek, eta kirolaren bidez ere ikasi egiten dute: kirola praktikatzeko, taldean jolasteko, ardurak hartzen... Monitore entrenatzaileak bideratzen du ikasketak hori, baina bada beste irakasle pisuzko bat, eta hori zuek zarete, gurasook. Kirolaren aurrean hartzen duzuen jokabideak eta jarrerak garrantzi berezia du seme-alabentzat. Beraz,

ANIMATU... zuen seme-alabak kirola praktikatzera, interesik izanez gero. Baina, hala ez bada, ez behartu.

BALORATU... saiakera eta ahalegina azken emaitza baino gehiago. Lagunduko dio haurrari bere trebetasunean helburu errealistak finkatzeko, eta garaipena lortze soila erlatibizatzen.

ESTIMATU... egin duen lana. Ez inoiz barregarri utzi edota garrasirik egin hutsegiteren bat egin duelako edo partida galdu duelako.

ERAKUTSI... esfortzu zintzoa garaipena bezain garrantzitsua dela. Horrela, jokoaren emaitza errazago onartuko du, eta alferrikako etsipenak eta tristurak alboratuko ditu.

BULTZATU... beti arauak betez jolastera.

GOGOAN IZAN... haurrek ondo pasatzeko antolatzen direla kirol hauek, eta ez gurasoen gozamenerako.

TXALOTU... jokaldi on guztiak, egilea zure aldekoa edo kontrakoa den erreparatu gabe. Eredugarria da haurrentzat.

SAIATU... gehiegikeria fisikoa eta hitzezkoa baztertzen kiroleko jardueretatik.

EMAN GARRANTZIA... monitore entrenatzaileen eta epaileen lanari, eta ez jendaurrean jardun haien kontra. Kontuan izan gehienak beren ahalegin zintzoena egiten ari direla zuen seme-alaben mesedetan.

KRITIKA ONGI BIDERATU... jokabide okerrak kritikatu egin behar dira zuzendu ahal izateko, baina behar den lekuetan egin eta planteatu behar dira. Horretarako daude ikastetxeetako kirol batzordeak, arduradunak...

ZER IKUSI, HURA IKASI dio esaera zaharrak.

• ESKOLA KIROLAREN NONDIK NORAKOA

ZER DA ESKOLA KIROLA?

Ikastetxeen bidez eskola orduz kanpo antolatzen den kirola da. Kirol bat baino gehiago ikasi eta praktikatzen da.

NORENTZAT DA?

6 urterekin hasten dira haurrak eskola kirolean, eta 16 urte bitartean ibil daitezke.

BA AL ZENEKIEN?

Deba Arroan iaz:

- 4.465 haur ibili ziren eskola kirolean.
- 150 lagun inguru aritu ziren monitore-entrenatzaile lana egiten.
- 44 ikastetxek eta kirol elkartek hartu zuten parte.
- 21 kirol desberdin praktikatu zituzten.

ESKOLA KIROLA ZERTARAKO?

Haur guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten.

- Kirol desberdinak ezagutzeko.
- Kirola modu egokian egin ahal izateko (entrenatzaile prestatuak, instalazio egokiak...).
- Kirola eginez ongi pasatzeko (batzuetan irabazi, beste batzuetan galdu, baina beti jokatu, jolastu eta gozatu).
- kirolean ere euskaraz aritu ahal izateko (kirol hiztegia landu, hizkuntza aberastu, eskolaz kanpo euskara erabili).
- Kirola eginez hezi eta garatzeko (lagunartean errespetuz eta arduratsu jokatu, kirol saioetara joan, partidetako ordutegia errespetatu, taldean hartutako konpromisoak bete...).